

Martin Ugalde. Itzulera baten historia

Andoni Egaña

Euskaldunon Egunkaria, 1999-12-19: 5.

Bat bitan banatzen da. Eta bidegurutzero egin behar da hautua. Uzten dugun hura miresten bide dugu giza-emakumeok.

Euskal Herrian sasoi jakin batean sortu zirenei bidegurutzeak biderkatu egin izan zaizkie. Gerra Zibilak ezarri zien lehena. Aukera haren ondorengo bidegurutzeak erbestera zeraman asko derrigorrez. Erbesteak itzulera zuen zor. Eta itzuli ondoren ere, herri hau dena delako, bidegurutzeetan arnasa hartu eta zidorretan bat aukeratu beharrean asko gertatu da.

Gerra Zibilak hamabost urterekin harrapatu zuen Martin nerabe hura irudikatzen saiatzen naiz, amarekin Iparraldera bidean. Sorterrian ikusten dut, Andoainen, hemeretzi urteko gaztea, naziak Frantzia hartu zuten garaian. Soldadu irudikatzen dut Marokon. Eta Caracasen familiarekin bat eginik azkenean, hogeitasei urte zituela. Hogeitaka urtetan begitantzen dut Venezuelan, kazetaritzara nahiz literaturara emana, euskaraz nola gaztelaniaz, Alderdi Jeltzalearen bizinahiari indarra eskainiz, petrolio konpainia bateko aldizkaria gidatzea urri zitziola.

Itzuleran, Donibane-Lohizunen ikus dezaket berriz, Francoren azken eztenkaden ondorioz. Eta Hondarribian gero, hainbat bidegurutzetara behartu zuen hark azken hatsa eman ondoren. Autonomia Estatutuak Eusko Jaurlaritza ekarri zuelarik, han ikusten dut, Lakuan, euskal arazoetarako arduraz. Eta gerora, ez aspaldi, erakundeekiko loturaz aske, ikusten dut euskarazko egunkari baten egitasmo itxuraz zoroa zuten gazteen zurkaitz.

Idazlea da Martin Ugalde. Zinez merezi dute irakurraldia bere euskarazko eta gaztelaniazko ipuin eta nobelek. Kazetari eta kultur gizona ere bada. Iaia "izan da" lerratu zitzaidan arestiko esaldietara. Euskal Herriko Unibertsitateak *honoris causa* doktore izendatu duen honetan bai baitirudi dena eginda eta deus egitekorik ez duela. Baina eleberri bateko pertsonajea izan zitekeen Martin honek ez du etsipenaren berririk. Eta, gainera, bidegurutzeetan beti asmatu izan du nondik jo.